Horrela bada, ALDARTEk immigrazioaren alorrean burutu duen lanaren eta landu dituen gogoeten ondorioa da dokumentu hau, eta eguneroko lanean etorkinekin ari diren gizarte eragile eta elkarte guztiei zuzendurik dago.

Gure artean egon dagoen arren maiz saihesten den errealitate baten inguruan gogoetarazi nahi dugu, denon artean lortu ahal izateko beste herrialde batzuetatik datozen pertsonak harrera egokia izan dezaten gay, lesbiana edo transexual diren aldetik ere.

Esku artean duzun dokumentu honek jarduera egokien gida ere izan nahi du eta zure eguneroko lanerako argibideak eta ideiak aurkitu ahal izango dituzu bertan.



## SARRERA

---

### **Immigrazioa eta sexu joera.**


Atzerritarrez<sup>1</sup> hitz egiten dugunean, normalean ez dugu homosexualitatearekin, lesbianismoarekin edo transexualitatearekin lotzen, ez zaizkigu horiek burura etortzen. Lege arazoak (“paperak” “paperik eza”) edota kultura, ekonomia nahiz integrazio kontuak dira hasiera batean gogora ekartzen ditugunak.

Alabaina, badira kontuan hartu beharreko bi gertaera. Batetik, gainerako esparru guztietan bezala, etorkinen artean ere badaudela gay, lesbiana eta transexualak, gurekin bizi direnak eta euren afektibitatea garatu nahi dutenak; eta bestetik, homosexualitatea eta transexualitatea esetsita izateko arrazoia izan daitekeela zenbait herrialdetan eta beraz, gay, lesbiana eta transexualek beren jatorriko herrialdeak utzi behar izaten dituztela jazarpenik ez jasateko edo hil ez ditzaten.

Gaur egun, arazo legal, ekonomiko eta integraziokoei ematen zaie arreta gehien etorkinen arretari dagokionetan, baina kontuan hartu behar dugu etorkinak gay, lesbiana edo transexualak izan daitezkeela eta kasu horietan erantzuna eman behar zaie sexu eta genero nortasunari dagozkien gaietan dituzten beharrei.

Bizi ditugun garaiotan begi bistakoa ematen du pertsona orok – duen sexu joera edo genero nortasuna gorabehera– Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean bildutako eskubide guztiez gozatzeko eskubidea duela eta hala onartu behar zaiola. Alabaina, egia da halaber, munduko hainbat tokitan ezinezkoa dela hori be-

<sup>1</sup> Atzerritarrak, etorkinak, immigranteak.



tetzea. Gaur egun gertatzen diren migrazio fenomenoetan, maiz, “ezinbesteko migrazioa” deitu ohi duguna izaten da migratzeko sakoneko arrazoa; hau da, gabezia gehienetan material-ekonomikoak direla medio, pertsonak emigratzea erabakitzen du, berarentzat eta jaioterrian gelditzen den familiarentzat bizimodu hobea eskuratzeko beharrak eraginik. Horrez gain, pertsona askok jaioterria utzi behar izaten dute bizitza salbatzeko, besterik gabe gay, lesbiana edo transexualak direlako; munduko hainbat herrialdetan heriotzaz zigortzen baitira homosexualitatea, gizonezkoena zein emakumezkoena (azken hori askotan arautu ere egiten ez den arren), eta transexualitatea.

Jendea bere jaiotzeko herrialdea -eta beraz familia, lana, inguru-nea, kultura...- uztera bultzatzen duten arrazoen artean, gero eta indar handiagoa ari dira hartzen sexu joera<sup>2</sup> eta generoa. Sexu joera arrazoi nagusia izan daiteke emigratzeko erabakia hartzerakoan eta, nolana ere, alderdi garrantzitsua da emigratzeko arrazoi nagusitzat hartzen ez duten gay, lesbiana eta transexualentzat. Gainera, kontuan hartu behar dugu ezkontza zibilaren eta adopzioaren inguruko azken lege aldaketen ondorioz lortu den lege berdintasuna dela eta, gure estatua gay eta lesbianentzako lehentasuneko jomuga bilakatu dela.

Sexu joerak bultzatutako immigrazioa hautua izan daiteke, norberaren sexu joera jatorrizko herrialdean ez duen askatasunaz bizi ahal izateko, baina zenbaitetan bizitza salbatu ahal izateko hautu behartua da. Lehendabiziko aukera egin dutenei “etorkin gay, lesbiana eta transexualak” izendapena emango diegu, eta bigarren hautura behartutakoei gagozkielarik “sexu joeragatik eta genero arrazoiengatik ihes egindakoak” direla esango dugu.

<sup>2</sup> Testu honetan bai sexu joera bain sexu aukera esamoldeak erabiliko dira.




## ETORKIN GAY, LESBIANA ETA TRANSEXUALAK

---

Lehen esan bezala, etorkinen artean badira gay, lesbiana eta transexualak. Horietako batzuek euren sexu aukera jaioterrian baino askatasun handiagoaz bizi ahal izateko hartu zuten etortzeko erabakia; beste batzuek, ordea, bestelako arrazoiak izan dituzte etortzeko, baina nolanahi ere joera homosexual, lesbiana edo transexuala dute.


Gay, lesbiana eta transexual horien egoeraz jabetzeko, etorkinen populazioaren potreta egin behar dugu, labur bada ere aspektu nagusienak kontuan hartuta:

- Hiru etorkinetatik 2 senitartekoeekin bizi dira, eta lautik bat lagunekin. Pertsona horien erdiak adierazten du gertuko senitartekoeekin bizi dela. Jatorrien arabera bereiziz, familia sareak direla eta, latinoamerikarrek dute joera handiena senitartekoeekin bizitzeko, eta asiarrak berriz, gehiagotan bizi dira lankideekin.
- Etorkin gehienek bitartekorik gabe edo lagun edo senitartekoen laguntzaz lortu dute azken enplegua, hau da, pertsonarteko sareak baliatuz eta ez sare instituzionalei esker.
- Espainiako herritarren artean, ehunetik 20k baino gutxiagok dute lagun edo senitarteko etorkinik, eta ehunetik 10ek baino gutxiagok dute lan harremana etorkinekin.
- Lau etorkinetatik 3k adierazten dute harremanetan daudela bere sorterriko jendearekin, batez ere etorkinak nagusi diren auzoetan bizi direnak, baina 4tik 3 ez dira inongo etorkinen elkarteko kide.

- 
- Etorkin heldu berrien arazo nagusiak euren egoera erregulizatzea eta lana lortzea izaten dira.
  - Tokian tokiko jendartean integratzeko oztopo nagusiak erlijioa, ohiturak, hizkuntza eta “paper” falta izaten dira. Etorkinen iritziz, lana lortzea eta senitarteko eta lagunen laguntza izatea dira integrazioa errazteko bideak.
  - Sorterriko erlijiotasunari eta kultura eta gizarte ohiturei eusten diete, nahiz eta ez han bezain irmoki.

Eta zer gertatzen da sexu aukeragatik edo generoagatik etortzen diren gay, lesbiana eta transexualekin, edo gay, lesbiana nahiz transexualak diren bigarren edo hirugarren belaunaldiko etorkinekin? Nola bizi dute hemen homosexualitatea, lesbianismoa edo transexualitatea? ALDARTEn hurrengo aspektu hauek antzeman ditugu gure lanean:


- **Isolamendua:** Gogoan izan behar dugu pertsona horiek, orain, bestelako herrialde eta kultura batean daudela; homosexualitatea, lesbianismoa eta transexualitatea euren jaioterrian baino normalduagoak eta onartuagoak daude, baina etorkinak eta aldi berean homosexual-lesbiana-transexualak izateak, maiz, ikusezinak izatera kondenatzen ditu.
- Haien gertueneko ingurunea, gehienetan, nazionalitate bereko senitartekoez eta lagunek osatzen dute, eta zaila gerta dakieke onartzea euren lagun edo senitartekoa (seme-alaba, neba-arreba, iloba...) gay, lesbiana edo transexuala dela, kultura askotan tabu baitira homosexualitatea eta transexualitatea. Gaitzeste horren atzean, sarritan, arrazoi erlijiosoak daude, munduan diren erlijioetako askok homosexualitatea kondenatzen baitute.
- Kultur arazoiek, oso sustraituriko matxismoak eta emakume gutxien duen ikuspegiak bultzaturik, ez da onartzen emakume batek beste emakume bat maitatzea, ez eta pertsona batek sexua berregokitzeko ebakuntza egiteko erabakia



hartzea, emakume batek ezkontzeari uko egitea...

- Etorkinek harrera herrialdeetan sortzen ohi dituzten nazionalitateen araberako taldeetan, sorterriko ohitura eta irizpi-deak izaten dira oraindik ere nagusi.
- Etorkinek, bai eta bigarren edo hirugarren belaunaldikoek ere, bazterturik sentitzen dute euren burua: jatorri etnikoagatik baztertuak, familiak eta lagunek baztertuak... Bazterketa bi-koitza beraz, euren kultura inguruak sortua batetik eta haien sexu joerak eragindakoa bestetik. Lesbianen kasuan areagotu egiten da hori, etorkinak, emakumeak eta lesbianak direlako.
- Beldurra: Bazterketari, bakarrik gelditzeari diote beldur gehien. Kontuan hartu behar da lagunek eta senitartekoek osatzen dutela haien ingurune nagusia, besteak beste, lana eskuratzeko bidea ematen diena. Taldearen eta familiaren laguntza baliabideak funtsezkoak dira etorkinentzat bai ikuspuntu afektibotik, bai eta ekonomikoki biziraun ahal izateko. Ingurune horrek gaitzesten baditu edo onartzen ez baditu duten sexu joeragatik, bakardadera kondenaturik geldituko dira eta nekezagoa izango zaie integratzea. Onartuko ez dituzten eta laguntza baliabide ekonomiko horiek ukatuko zaizkien beldurrez, gutxitan agertzen dute euren nortasuna gay, lesbiana eta transexualek.

Etorkin gay, lesbiana eta transexual asko, gure herrira heltzen direnean, etorkinen elkarteetara jotzeko uzkur agertzen dira, sentitzen baitute jaioterrian baztertzen zituzten "pertsona berak" aurkituko dituztela (pentsamolde bera, gaitzespen bera...). Elkarte horietan ez ohi da kontuan hartzen haiengana jotzen duten pertsonen sexu joera, baina uste dugu garrantzi handikoa dela horri erreparatzea, etorkinak ez dezan berriro sentitu sorterritik emigratzea erabaki zuenenean sentitzen zuen gaitzespen bera. Funtsezkoa da haientzat gay, lesbiana edo transexual modura hartuak izatea.



Alabaina, isolamendu modurik gogorrenetako bat ikusezintasuna da, hau da, norik bere burua jendaurrean askatasunez ezin agertzea, ezkutuan, klandestinitatean ibili behar izatea, bestela jokatuz gero egon litezkeen ondorioen beldurragatik.

Zenbait arrazoi direla medio -esaterako legeria aldekoagoa izatea (homosexualen arteko ezkontza, adopzioa)-, zenbait etorkinek erabakia har dezakete hona etortzeko sexualitatea modu librean eta eskubideen berme handiagoaz bizi ahal izateko; horrek ez du esan nahi, alabaina, gizarteratzea zaila eta neketsua izango ez denik gay eta lesbianentzat.

Gay edo lesbianentzat integratzea zaila gerta badaiteke, are latzagoa izaten da transexualen kasuan, haien egoeraren berezitasunek erabateko bazterketara behartzen baitituzte maiz. Etorkin transexualek, gehienetan, ez dute lagun edo familia ingurunerik izaten, ez dira herrikideekin identifikaturik sentitzen, lana aurkitzeko zailtasun handiak dituzte eta, sarritan, prostituzioa eta erabateko zokoratzea dute bide bakarra. Besteak beste, transexual atzerritarrak Genero Nortasunaren Legera ezin biltzeak areagotu egiten du zokoratzea, zailagoa baitzaie integratzea.




## SEXU JOERAGATIK ETA GENERO ARRAZ- ZOIENGATIK IHES EGITEA.

---

Gure gizartean alde ekonomikoa gainerako guztien gainetik dagoela ematen duen arren, badira askatasuna eta maiz bizitza bera salbatu ahal izateko sorterrria utzi eta beste herrialde batzuetara joan behar duten pertsonak. Munduko herri askotan gay, lesbiana edo transexual izatea bekatzat jotzen da, gaixotasuntzat, ohorearen kontrako zerbait bailitzan, kristautasunaren aurkako nahiz afrikartasunaren aurkako zerbait.

Herrialde askotan, bai Europan bai Europatik kanpo, ez dago estatuen aldetiko bazterketarik gay, lesbiana edo transexual izateagatik. Ez da ageriko errepresiorik burutzen haien aurka eta homosexualitatea, lesbianismoa eta transexualitatea ez daude legez zigorturik. Herrialde askotan bazterketaren kontrako neurriak hartu ere hartzen dira, alabaina, testuinguru kultural eta soziopolitikoak eutsi egiten dio sarritan bazterketa horri eta, gay, lesbiana eta transexualek jazarpena jasan behar izaten dute gizarteko alorrik pribatuenetan, familian eta gertuko ingurunean,. Gauzak horrela, familiaretan, lantokietan, auzoan... ageriko bortxa egoerei egin behar diete aurre eta mehatxuak, jazarpenak eta oinarrizko eskubideen urraketa pairatu behar izaten dute. Gehienetan, onartu gabeko bortxa izaten da, eta beraz, demostratzeko oso zaila.

Gay, lesbiana eta transexualen kontrako erasoak eta jazarpenak etengabeak dira eta horren biktima diren pertsonak beldur eta larritasun egoera eramangaitza bizi dute.



- Zenbait herritan, gay, lesbiana edo transexual izateak norberaren bizitza arrisku larrian jartzea ekar dezake. Afrika eta Asiako herri askotan bizi osorako kartzelaz edo heriotzaz zigortzen da homosexualitatea: Saudi Arabian, Pakistanen, Iranen, Mauritanean, Sudanen, Somalian eta Yemenen. Gehiengo musulmana duten beste herrialde askotan, kartzela eta bestelako zigor fisikoak ezartzen dira. Afrikako zenbait herritan emakumeak bortxatu egiten dituzte, “sendatzeko”. Hego Amerikan, bai heriotzaren eskuadroiek bai eta batzuetan polizia berak ere transexualak hiltzen dituzte inolako zigorrik hartu gabe, agintariek ez dutelarik inolako neurririk hartzen. Iranen eta beste lege islamikoa aplikatzen duten beste herri batzuetan, gay den gizonak 100 zigor kolpe har ditzake jardura homosexualengatik.

- Legeek homosexualitatea esplizituki zigortzen ez duten beste herrialde askotan hedaturik dago homosexualitatea gaixotasuna delako ustea, eta beraz erabat gaitzetsi eta mespretxatu beharrekoa; batzuetan ideia erlijiosoek ere laguntzen dute horretan (esaterako, Polonian).

Gizartean hedaturik dauden aurreiritziek jarrera eta jokaera homofoboak sustatzen dituzte, eta horietatik dira sexu joeragatiko migrazioa bultzatzen dutenak, lana nahiz familiaren eta norberaren askatasunaren artean aukera egitera behartzen dutenak.



## LESBIANISMOAK AIPAMEN BEREZIA ME-REZI DU, IKUSEZINTASUNA ERABATEKOA IZATEN BAITA KASU ASKOTAN

---

Ikusezintasuna aipatu dugu lehen, eraso moduen artean, eta bereziki pairatzen dute emakumezko transexualek eta lesbianek; lesbianismoa historikoki onartu ez izanaren ondorioz, haren eragina askoz handiagoa baita gizonezko homosexualen aldean. Gizonezko homosexualitatea esplizituki debekaturik dago munduko hainbat herritako legerietan, legez kontrako jarduntzat jotzen da; herrialde horietako askotan, alabaina, emakumezkoen sexualitateak ez omen du legezko arauketarik behar. Gizonezko homosexualitatea legez kontrakoa den herrialde askotan, emakumezkoena ez da aipatu ere egiten, “ez-izatearen” zulora kondenatuz lesbianak.

Nolanahi den ere, esan beharra dago transexualek bortxa izugarria jasan behar izaten dutela sorterrietan, bai eta heriotza ere sarritan, eta kasu gehienetan gay eta lesbianena baino askoz egoera txarragoa izaten da haiena.




## ELKARTEETAN GAY, LESBIANA ETA TRANSEXUALENTZAT ERE BADAGO TOKIA

Gay, lesbiana eta transexualek gizarteratzeko eta integratzeko sareak behar dituzte bai etorkinak diren aldetik bai eta gay, lesbiana edo transexual diren aldetik. Lehen aipatu bezala, hortaz, funtsezkoa da pertsona horiei laguntzea isolamendu egoerarik bizi ez dezaten.

Horretan guztian zeresan handia dute etorkinen elkarteek:

- **Gay, lesbiana eta transexualen harrerari dagokionean:** Garrantzitsua da elkarteek beraiek, zerbitzuak eskaintzerakoan, kontuan hartzea laguntza eskatzen duen pertsona gay, lesbiana edo transexuala izan daitekeela, horrela bakarrik erantzun ahal izango baitiete haren behar zehatzei.
- **Sentsibilizazio eta informazioari dagokionean:** Homosexualitateaz eta transexualitateaz informatzeko eta sentsibilizatzeko kanpainak bultzatu behar dira elkarteetan, gay, lesbiana eta transexualen harrera eta integrazio hobea sustatzeko.
- **Gay, lesbiana eta transexualen elkarteekiko lankidetzari dagokionean:** Garrantzitsua da alor honetan dauden baliabide guztiak ezagutzea, errealitateari hobeto erantzun ahal izateko.

Aldi berean, lesbiana, gay eta transexualek eratutako taldeak bide garrantzitsua dira gizartean parte hartzeko eta integratzeko; la-



guntza sare baliotsua osatzen dute etorkin horiek sustatzeko eta herritar oso eta aktiboak direnez onartuak izan daitezzen. Talde horietan baliabide ugari aurki daitezke, besteak beste:

- Sentsibilizazioa eta gizarte hezkuntza
- Laguntza eta eztabaidarako taldeak
- Jarduera ludikoak eta gizarteratzekoak
- Aholkularitza juridikoa
- Orientazio psikologikoa

Gure erkidegoan pertsona gay, lesbiana eta transexualei dagokienean lortu diren aurrerapauso sozial eta legezkoak hemen lan egingen dugun eta bizi garen pertsona guztiengana heldu behar direla uste dugu. Horrela bada, gay, lesbiana eta transexual diren etorkin guztiak GLTB elkarteetan parte har dezaten animatu behar ditugula pentsatzen dugu.



## HASSAN, ALJERIAKO GAY BATEN LEKUKOTZA

Aldartekook uste dugu orain arte adierazitakoa oso ondo islaturik dagoela gay aljeriarra batek lehen pertsonan eskaintzen digun lekukotza honetan. Protagonistaren datu pertsonalak aldatu egin ditugu, beldur baitzen identifikatuko ote zuten, eta oso esanguratsua da hori horrela gertatzea, agiri honetan azaldutakoa baieztatzen baitu.

Hassanek 19 urte ditu gaur egun eta gaztetxotan, 17 urte zituela, etorri zen.

Gay zelako hartu zuen hona etortzeko erabakia.

*“Betidanik interesatu eta gustatu izan zaizkit mutilak”.*

Bere herrian, Aljerian, ezin zuen homosexualitatea askatasunez bizi, ezin zuen esan gay zela, oso txarto ikusia dagoelako:

*“Aljerian oso txarto neraman homosexuala izatea. Saiatu nintzen gay ez izaten, askotan utzi nahi izan nion izateari, eta ezin izan nuen. Ezin nuen inorekin konpartitu sentitzen nuena, ez senitartekoekin ez lagunekin, familiak susmatzen zuen arren. Amaren gauzeekin jolasean harrrapatu ninduten, eta zera esaten zuten: “markoi samarra da hori”. Anaiarekin borrokak izan ditut eta amaren aurrean “marikoi” deitu izan dit. Amek, badakizue, beti dakite zerbait. Etxean ez zen gaia aipatzen. Uda honetan, ez, honetan ez, aurrekoan, amak anaiarekin elkartu nahi izan ninduen zeraz hitz egiteko, “zure erlijioan homosexualitatearena oso txarto dago eta hori dena”, anaiarekin elkartu nahi ninduen amak*


*zerbait badakielako, baina ez du ezer jakin nahi, dena gezurra bailitzan, nire semeari neskak gustatzen zaizkio, eta gauzak ez dira horrela."*

*"Aljerian pentsatzen da homosexualitatea sendabiderik ez duen gaitasuna dela, HIESaren pareko zerbait, eta oso txarto begiratzen zaie gay diren mutilei; gogoan dut ikasgelan bazegoela luma dexente zuen mutil bat eta inor ez zen harengana hurbiltzen, denek egiten zioten burla eta iseka,"*

Egoera hori izanik, aukera egin behar izan zuen: familia eta ingurunea ala gay izatea. Oso erabaki latza izan zen:

*"Hona etorri nintzenean ez nuen esan zergatik. Aitaren etxetik ihes egin nuen, begiak itxita, baina orain hemen nago eta galduta nabil, ez homosexualitateari dagokionean, baina han, Aljerian ikasi egin nahi nuen, karrera bat ikasi, eta hemen zail samarra dela ikusten duzu."*

*"Oso txarto pasatu nuen hona etorri nintzenean. Izugarritzko sama ekarri zidan horrek, inork ez daki zenbaterainokoa, eta oraindik ere horren pisua igartzen dut. Une txarra bizitzen ari naiz, eta batzuetan damu dut etorri izana, batez ere amaren falta dut. Orain hemen nago, bakarrik, bakarrik egin behar diot aurre nire egoerari, ez dut inor ondoan, ingurura begiratu eta ikusten dut besteek gurasoak badituztela, familia badutela, gay dira eta libre bizi dira, eta neure buruari begiratzen diodanean irla baten modura ikusten dut, marrazoz inguratuta: uretara sartzen banaiz kosk egingo didate, eta horrela biziraun behar dut. Gauza asko utzi ditut atzean, inork ez daki zenbat, oso zaila da sorterrria uztea 17 urte dituzula. Hona etorri nintzenean ama zoratzeko puntuan zegoen, Espainian nengoela egin nuen ihes, oporretan etorri nintzen eta ez nintzen itzuli. Amak oso-oso txartu hartu zuen. Amarekin luzarago egoteko gogoia dut, ze, ama, ama da. Ez da berdin etxetik 30 urtetan edo 17 urtetan alde egitea, 17tan gazteegia zara, ez nago oso pozik. Ama kendu didatela sentitzen dut, gay izatearen eta amaren artean aukeratu dut. Oso gogorra izan da niretzat, ni ume etxe*



*zalea bainintzen, ez nintzen ia inoiz ateratzen, beti amarekin egoten nintzen, eta bat batean atera egin nintzen, oso txarto pasatu nuen erabaki hori hartzeko. Asko pentsatu nuen. Inork ez dakit han zer jasan behar izan nuen, eta inork ez du jakingo, min horren parekorik ez da goelako. Gauzak aldatuko direla espero dut, itxaropena badut denborarekin gauzak aldatu egingo direla”*

Behin hona etorrita, homosexualitatea askatasunez bizitzen eta adierazten hasteko modua izan zuen Hassanek, baina ez arazorik gabe:

*“Hemen, hasieran harrera zentro batean bizi izan nintzen eta gero senitarteko batzuekin. Orain pisukide batzuekin nago. Hamazortzi urte bete nituenean joan nintzen pisura, gay naizelako. Izeko-osabekin bizi nintzenean ezin nuen gauz irten, eta pisura joan nintzenetik nahi dudan orduan etor naiteke. Senitartekoek ez dakite gay naizenik. Nik esan egin nahi nuen, baina osabak bestelako pentsamoldea du, aspaldiko aljeriaren pentsamoldea du. Eta beldur naiz hemen alaba bat dutelako, eta ez dute nahi espainol batekin ezkontzerik, behin aipatu egin zidan zeharka harekin ezkon nintekeela. Baina nik paso egiten dut eta bisitak gutxitu egin ditut”*

*“Homosexualitateari dagokionean hemen oso ondo nago. Hona etortzeko gogoia izan dut betidanik, banekielako Espainian askatasunez bizi dela. Hemen nire mutil lagunarekin atera naiteke, mutil batzuk ikusi eta lasai esan dezaket “hori bai morrosko ederra”, giroan ibil naiteke, mutilekin dantzatu, mutilekin enroilatu, kalera irten eta mutil bati eskutik heldu, nahi dudan modura jantzi... han ez. Hemen ondo sentitzen naiz, homosexualitateagatik etorri naiz hona, ez beste ezergatik. Nire ondoan mutil bat edukitzeko. Gainera, nire herrian, egia esateko, nire lagunak, ustezko lagunak, sakonean ez ziren adiskideak; ezer onik ez nuela sentiarazten zidaten, ez dakit zer egin ote diedan, baten batek bazuen susmoa gay ote nintzen, kakaren hurrengotzat tratatzen ninduten eta halaxe sentitzen nintzen ni. Egia esateko, hona etorri eta gero, apurka-apurka ondo sentitu nintzenean, indarrez, bizitzeko gogoz, hara*

*jaitsi nintzen eta jende guztiak esaten zidan, asko aldatu zara. Indart-suago sentiarazi dit horrek, orain bai, oso ondo sentitzen naiz”.*

*“Hemen Aljeriako lagun bakarra dut. Harremanik ez dut beste algeriarekin, horrek arazoak sortzen dizkidalako. Baten bat baldin badago ikusmolde zabalekoa eta horrela, bada, bai, baina finean lagun bakarra dut.”*

*“Hemengo koadrila daukat, Bilboko jendea, lagun heteroak ditut baina haiekin 22:00ak edo 23:00ak arte ateratzen naiz, gero etxera noa, looka eta dena aldatzen dut eta giroko lokaletara noa. Ez dakite gay naizenik.”*


## **SUZI ETA TATIANAREKIN SOLASEAN.**

**Suzik eta Tatianak 25 eta 23 urte dituzte, hurrenez hurren, eta lesbiana bikotea osatzen dute. Brasilgo Bello Horizonte Unibertsitatean ezagutu zuten elkar; ezagutu eta handik hiru hilera joan ziren elkarrekin bizitzera. Honelakoak izan ziren orduko garai haiek:**

TATIANA: “Ni ikasleen lehenakaria nintzen, eta Suzi oso ezaguna zen. Jendeak elkarrekin geundela jakin zuenean, aldatu egin zuen gureganako jarrera. Behin baino gehiagotan joan ginen Unibertsitateko Errektoretzara ikasgeletan txisteak egiten aritzen zirela eta gurekin sartzan zirela esatera. Talde lanean jarduten genuenean, 6-8 pertsona elkartzen ziren, baina gurekin inork egon nahi ez zuenez, ez genuen taldean aritzerik.

Dena zen berria, oso berria. Ikasleen lehenakari izateari utzi nion. Sekulako ezintasuna sentitu genuen, ez baikenituen ondorioak aurrez ikusi. Izutu egin ginen.

Senitartekoekin hitz egin genuen, ez guztiekin ordea, baina inork ez zigun laguntzarik eman. Amarekin eztabaida latza izan nuen. Brasilen pisua aurkitu arte, etxean hartuko gintuen jende bila ibili behar izan genuen.”



SUZI: “Ahizparenenera joan ginen, baina ez gintuen hartu; beste ahizpak, ordea, bai. Nire familiak pixkanaka onartu ninduen, baina gauzak ez ziren lehenera itzuli. Lobaren graduazio ekitaldira gonbidatu ninduten, baina Tatiana ez, jendeak hitz egingo zuelako aitzakiaz...

Bikotea ginela adierazi ostean lagun guztiak galdu genituen. Ni erlijio talde batekoekin ibiltzen nintzen sarri eta beti hartzen nuen jardueretan parte. Arduradunari, aspalditik gertatzen zitzaidana kontatu nion baita ezkutatzen jarraitzeko asmorik ez nuela ere; de-abruak beretu ninduela esan zidan”.

**Egoera horrek guztiak Brasildik ihes egitera eraman zituen. Ez zuten tupustean alde egin; ondo pentsatu zuten nora joan eta planteamendu bat egin zuten. Espainiak gayen arteko ezkontzak eta abar onartzeak hartutako erabakian eraginik izan ote zuen galdetu genien.**


“Urtebete eman genuen plana prestatzen. Suzik azken ikasmilan utzi zuen Unibertsitatea, eta kanpora joateko aurreztuko gurela erabaki genuen. Ezkontzeko aukera zegoen eta homosexualek heterosexualeen eskubide berak zituzten herrialde guztien zerrenda egin genuen, horrela, Kanada eta Espainia aukeratu genituen. Internet bidez aritu ginen elkarte bila. Bilbon bizi zen lagun bat genuen, eta hark Bilbon jendea errespetatzen dela esan zigun, beraz, hona etortzea erabaki genuen.

Brasilen homosexualitatea ez da delitu, ez da kondenatzen, baina homofobiaren aurkako legea onartuta ere, urteak pasako dira homosexualak aintzakotzat hartuak izan arte.

Itxuraz ez da horrela gertatzen. Brasilen inauteria saltzen denez, inork ez du ulertzen horrelako herrialde batek aurreiritziak izatea.”

**Ea lesbiana izateak eraginik izan ote zuen beren erabakian galdetu genien.**

“Bai; horrexegatik etorri gara, ez gara aberastera etorri. Hona bizitzera etorri gara, bizitza hemen eraikitzen. Guri ikusgai izatea gusztatzen zaigu, ez dugu gogoko ezkutatzen ibiltzea. Nik ez diot jende



guztiari lesbiana naizela esaten, baina lagun arteko harremanak es-  
tutzen doazen neurrian hurkoak jakin egin behar duela uste dut, nire  
izatearen oso alderdi garrantzitsua baita”.

**Ea harrera ona izan duten, ea paperak edo formularioak betetzera-  
koan bazterkeria sentitu duten, ea bikote gisako tratua jaso ez  
duten... galdetu, eta hau erantzun digute:**

“Harrera ona egin digute, eta ondo egon gara; orain, azkenean, pisua alo-  
katzea lortu dugu, luzaroan logelak konpartitu behar izan ondoren. Pisua  
alokatzeko eskaini zuen andere bati deitu, eta bikotea nahi zuela erant-  
zun zigun. Bi neska ginela erantzun nion, eta berak, bikotea nahi zuela.  
Senar-emaztearen gisako bikotea ginela esan nion. Nahiz eta beste be-  
rrogeita hamar bikote gehiago zituen zain, zintzotasunez erantzuteaga-  
tik guri alokatuko zigula esan zigun. Duela urte batzuk aurreiritziak zituela,  
baina horrelakoak uxatuak zituela kontatu zigun.

Suzi erroldatzera joan nintzenean, bere pasaportearen eraman nuen  
Udalera. Bikotea erroldatzera etorria nintzela adierazi nion leihatila-  
lakoari, eta mutilaren izena galdetu zidan. Neska zela erantzun nio-  
nean, izena idatzi zuen, txintik ere esan gabe.”

“Hemen bestelako aurreiritziak deskubritu ditugu, etorkinekiko aurrei-  
ritziak. Iritsi ginenetik gauza asko gertatu zaizkigu, baina ez lesbiana  
izateagatik, etorkin izateagatik baizik. Ez dugu Euskal Herriko gay edo  
lesbiana lagunik, gure lagun guztiak etorkinak dira. Ezagutu dugun jen-  
dea Aldarten topatu dugu. Gu bezalako jendea da; beren herrialdeetan  
txarto pasatu duena eta hona, ez dirua irabaztera, baizik eta libre iza-  
tera etorri dena. Zeren gu etorkin baikara, eta hori beste borroka bat da.  
Gizarte honek gauza naturaltzat du; hemengo jendea gay ez diren la-  
tindarrak baino irekiagoa da. Latindarrek arraro begiratzen gaituzte.  
Logela bila ibili ginean, arazo ugari izan genituen bikote ginela esa-  
teagatik. Gauza izugarriak esateko deitzen ziguten...”

Andere koloniar batek erne ibiltzeko eta bikote ginela sekula ez esa-  
teko eskatu zigun, jazarri egingo gintuztela eta.”

### **Irekia, ikusgai izatea hobe dela uste al duzue? galdetuta, hona erantzuna:**

“Nik ezingo nuke beste era batera bizi; norberaren benetako izaera agertzerik ez izatea ikaragarria iruditzen zait. Txarrena jazarpen psikologikoa da; horregatik irten dugu gure herrialdetik. Ez dago lasai bizitzerik; beldurrak akabatzen bizi beharra, ikusezin bihurturik bizi beharra... hori ez da bizitza!”

### **Immigrazioko erakunde edo instituzioek eta elkarteek lesbiana, gay eta transexualekin egiten duten lanari buruz honakoa adierazi zuten:**

“On litzateke elkarteek arazoa kontuan hartzea. Jendearengandik hurbilago egon beharko lukete. Pertsona bakoitzak historia bat du; pertsonak ez dira “zenbakiak” eta “paperak”.

Jendeari gizartera biltzen lagundu behar zaio; diru bat eskura dezan laguntzea baino garrantzitsuagoa da nor bere kabuz ibiltzeko gai izaten laguntzea.

Guk ez dugu diru laguntza jaso nahi, lan egin nahi dugu. Esate baterako, gure ikasketak homologatu nahi ditugu, baina pila bat oztopo aurkitzen dugu bidean. Guk, lehen, lanbide bat baguenen, baina orain, lehen egindako guztiak ez du piperrik balio.”

### **Bilbon nola bizi diren galdetu genien.**

“Gure egoera irregularra da. Urtebete eta erdi dugu aurretik, eta ez kontzeko asmoa dugu.

Izatezko bikote egin gaitzke, baina ez dugu Brasildik paperak aterako dizkigun inor, beraz, denbora pasatzen utziko dugu, eta legezko egoeran egotera iristen garenean ezkonduko gara.

Edozer izaten ohituta gaudenean, ez dakigu zer den dugun hori ez izatea. Hona etorri eta horrelakorik -errespetua, duintasuna, eskubideak....- sekula ezagutu ez dugunontzat, hori guztia izatea beste mundu batean bizitzea bezalako zerbait da. Berebiziko ilusioa egiten du gainontzekoek dituzten eskubide berberak izateko aukera dagoen mundu batean bizitzeak, mundu hori perfektua ez bada ere.”

2009ko maiatza.



## **SEXU JOERAGATIKO ETA GENERO ARRAZOIENGATIKO JAZARPEN KASU ERREALAK**

Ayu, Malaysiako emakume transexuala; funtzionario erlijiosokoek jipoi basa eman zioten eta lagun batzuekin hizketan ari zela atxilotu zuten autobus geltoki batean.

Kamerunen, ikastetxetik bidali zituzten hamabi ikasle, lesbianak zirela susmatzen zutelako.

Ugandan, gay, lesbiana eta transexualen kontrako abusuek iraun egiten dute. Hedabideek gizonetako homosexualak esetsi eta jartzten dituzte. Abuztuan, ustez gay ziren hainbat gizonetako zerrenda argitaratu zuen "The Red Pepper" egunkariak.

Saudi Arabian, "ezkontza gay" batera joan ziren lau gizonak bi urteko kartzela zigorra izan zuten eta 2.000 zigor kolpe jaso behar izan zituzten.


Iranen, 100 zigor kolpe hartzera kondenatu zuten gizon bat 2004. urtean, jarduera homosexualengatik.

Perun, Solange Tragodarak emakume lesbianeia aholkua emateko GKE bat zuzentzen zuen, bera ere lesbiana baitzen. Lan hori egiteagatik bahitu eta jipoitu egin zuten eta jipoialdi traumatiko baten ondorioz ospitaleratu egin behar izan zuten eta, nolabait, herrialdetik alde egitera behartu. Peruko nekazari aldean ez da arraroa lesbianak bortxatzea, alda daitezen saiatzeko. Solangek Espainiara jo zuen eta asilo politikoa eskatu zuen bere bikotekidearekin batera; ukatu egin zioten eta egun Bilbon bizi da egoera irregularrean.



## DOKUMENTU INTERESGARRIAK:

- Immigrazioari buruzko Behatoki Iraunkorraren txostena (Inmigrazio eta Emigrazioaren Estatuko Idazkaritza). “Las redes sociales de los inmigrantes extranjeros en España”. Rosa Aparicio eta Andrés Tornos.
- “ZERO” aldizkaria. 64. alea. 2004. “Europa-crece: ¿Qué esperamos de los nuevos miembros?”.
- “ZERO” aldizkaria. 88. alea: 2006. “Europa del Este: cruzada de odio”.
- MUGAK aldizkaria, 43. alea, 2008ko ekaina, “Otros proyectos migratorios, Inmigración y sexualidades”.
- Gutxiengo Sexualen premiazko Ekintzen Sarearen txostena. “Los derechos humanos y la orientación sexual e identidad de género”: Amnistia Internacionala.
- Amnistia Internazionalak aldizka argitaratu ohi dituen DIVERSIDAD izeneko buletinak. Euren Web orrian ere kontsultatzen ahal dira.
- Mujika Flores, Inmaculada, “Emakume lesbianen ikusgaitasuna eta parte hartzea Euskadin”, “P. Francisco de Vitoria” Giza Eskubideen Bilduma, Arartekoa, 2007.
- Mujika Flores, Inmaculada, HEMEN ERE BADUZU ZURE TOKIA. Gay, lesbiana eta transexual etorkinen integrazioari laguntzeko jarduketa protokoloa, ALDARTE, Bilbao, 2008.

- 
- Villar Amparo, Mujika Inmaculada, ETA ZU, ZERGATIK EZ?... MUGI ZAITEZ SEXU ANIZTASUNAREN ALDE. Eskubide sexualak, giza eskubideak eta LGTB eskubideak, ALDARTE, Bilbao, 2008.
  - "Emakume lesbiana eta transexualak, bereizkeria bikoitza" txostena, ALDARTE 2007.
  - Homosexualitateari eta islamari buruzko ikerketa soziologiko eta juridikoa, COGAM, Madrid, 2007.
  - EAEko gizon eta emakume transexualen arretarako jardunbide egokien eskuliburua, ALDARTE, 2007.